

Noaua !!



Hastera doaz Aginagako
San Praixku jaiak



**Xabin Aizarna,
Udarregi ikastolaren
aurpegi berria**

SETABU TAILERRAK, S.M.
ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



- ✕ SOLDADURA
- ✕ BURDINEZKO ATEAK
- ✕ BURDIN SAREAK
- ✕ PLANOTIK EGINDAKO
PIEZAK

**Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe**

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

USURBI **L**
GIDARI-ESKOLA



%20ko deskontua matrikulan!

MATRIKULA ZAITEZ!

*Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 - 651 70 37 71*

✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen
horniketa eta nekazari lanerako
behar diren produktuak: ongarriak,
fitosanitarioak, tresnak, baratzantza,
haziak, patata, e.a.

✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa,
zainzuriak, piperrak, babarrunak

✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:


Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu
eta txori jana



BETIKO "SINDIKATUA" ORAIN BERRITUA, JENERO GEHIAGOREKIN

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: alkartasuna@fcae.org

Txirrikitutik



Egile ezezaguna, 1953.10.15, Zubieta

Udal fototeka

Noaua!!

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zaloa Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Xabin Aizarna da Udarregiko zuzendari berria.

Komunikabideak tarteko, uholdeek inoiz ez bezalako oihartzuna izan dute aurtan. Gurean aldiz, aurtan oraingoz, zorionez, ez da halakorik.

Baina gure herriak ere behin baino gehiagotan jasan izan du uholdeen hondamendia. Zein ez da gogoratzen 1997ko ekainaren 1ean jasotakoaz edota 1983ko abuztuaren 26an izandako uholdeez. Hala ere helduenek 1953ko urrian izandakoa aipatzen duten azken urteetako handiena bezala.

Aste honetako argazkia 1953ko uholdeetako da hain zuzen. Argazkia Txikierdi etxearen gainkaldetik aterata dago eta bertan Zubietako bailara urez estalita ageri da Oria ibaiak gainezka egin ondoren. Lehen planoan Babilonia baserria urak harrapatutik, segidan zerratokia eta atzerago, Barrenetxe baserria ura oso hurbil duela eta Aliri baserria urak harrapatutik.

Ikus daitekeen bezala errioak hartutako zabalera izugarria da. Zerratokian oraindik bertan dago urak hartu zuen maila erakusten duen marka. Errekondotarrek azaldu digutenez, 1953an urak 2,60 cm. altuera hartu omen zuen zerratokian; 1983an berriz, 2,10 cm.

ZALOA ARNAIZ

Aurkibidea

BERRIKETAN, J. A. AZPIROZ _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 10. ORR.

Laster hasiko dira Kultur
Etxe berria eraikitzen

IKASTARO GEHIAGO MARTXAN _____ 12. ORR.

XABIN AIZARNAREKIN HIZKETAN _____ 14. ORR.

IÑAKI ERRASTIREKIN SOLASEAN _____ 16. ORR.



AGINAGA ETA ZUBIETAKO IKASLEAK _____ 18. ORR.

MAJERAKO KONDARRAK _____ 19. ORR.

EGUN HAUETARAKO DEIALDIAK _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak
Euskal Herreria!



LUIS ARANALDE

Irakatsi eta hezi

Kaixo irakurle! Niri dagokit atal berriari hasiera ematea. Pulpitu berria eskaini didate eta aukera horri helduko diot, nire gogoetatxoa atsegina izango zaizulakoan.

Gure haur, gaztetxo eta gazteek ekin diote ikastaro berriari; ez naiz berriro igoko beraiekin ikastolako geletara, aurre-erretiroa hartu bainuen duela urte bete. Irakaskuntzan hainbat urtez aritu ondoren, beste lantxo batzuek zerbitzatu nahi nuke gizartea.

Ikastaro aberasgarri bat opa diet gure ikasleei. Zenbat ilusio, amets, kezka gazte horiengan! Ez daude, ez, etorkizun errazaren aurrean: norgehiagoka basatia askotan, lanaren ziurtasun eza, indarkeria, filosofia materialistak ere erraz hiltzen ditu

beren amets espiritualak.

Ikastaro berriaren aurrean erronka latza daukate irakasleek: nola irakatsi giza zientziak ikaslearen espiritua heziz aldi berean. Izan ere, idazle batzuek manifestu batean dioten bezala: "espirituaren bizitza desagitea da gaurko munduaren arriskua". Lanean, produzitzen, kontsumitzen eta dibertitzen bakarrik ikasiko luke ten neurrian, balore handienaz jabetu gabe biziko lirateke gazte hauek.

Nik ondo ezagutzen dudak ikastola bateko hezkuntza proiektuari jarraituz, honako alderdi hauek landu behar lituzke irakasleak ikasleagoarekin: "ezagutza eta balore intelektualak, sensibilitatea eta balore estetikoak, gizartekotasuna eta balore sozialak, zuzentasuna eta balore etikoak".

Hezkuntza proiektua gauzatzeko,

ezinbestekoa da, alde batetik, irakasle eta gurasoen arteko lan komun bat. Askotan entzun dut irakasleen kexu hau: "Heziketaren erantzukizun osoa gure eskuetan uzten ditek". Bestetik, irakasleak ere ekipa trinkoa eta ilusio handiz jantzia izan behar du. Horrela lortuko dute ikasleak itxaropentsu eta balore sendoen jabea.

"Zer da batek amesten duena? Ametsa, ilusioa, fantasia. Baina, askoren artean amesten dugun hori esperantza da, utopia eder bat" zioen HELDER CAMARAK. Animo, bada, irakasle, lan ederrik bada, zurea da eta! Zientziarekin batera lagun iezaiezu pertsonaren neurrigabeko balioa deskubritzen, landu ezazu beren autoestima. Fruituak ez dituzu, agian, segituan ikusiko, baina, esperantzarik ez galdu.

Berriketan !!



Jose Antonio Azpiroz

AIAKO TXIKIA KORRIKALARIAREN SEMEA, BABA BELTZ TXIKIAREN EGUNEAN PARTE HARTZEN DUEN HORIETAKOA DA JOSE ANTONIO AZPIROZ.

Baba beltz txikiaren bazkaria primeran, ezta?

Bai, lagunartean beti ondo. Datorren urterako deialdia egina dago, abuztuaren 28an Andazpe elkartearen.

Alemanian ibilitakoa zarela esan digute.

Bi urte egin nituen han, 1962tik 1963ra. Alemaniera? Erdara adina bai. Irakurri eta ez, baina fabrika beste erremediorik ez zen han! Gramatikari emango genizkion kolpe batzuk, baino, haiei ulertzeko ze erremedio! Zarautzera euskara ikastera etorri zen alemaniar baten bitartez joan ginen hara 8 lagun. Alemanian fabrika bat zuen eta bere bitartez joan ginen hara.

Gogorra egingo zitzaizuen, ezta?

Trenez joan ginen Parisen trasbordo eginga. Egurrezko male-

tak ziren ordukoak. Bonn hiritik 50 kilometrora egon ginen. Italiarrak, turkiarrak... denetatik zen han. Etxe oso eleganteak zeuzkaten. Bi urtera bueltatu egin ginen. Gauzak nahasten hasi ziren eta azkenean buelta egin genuen.

Esperientzia polita, hala ere.

Bai, lana ere txukuna zen. Hemen baino gehiago irabazten zen. 20 urte izango banitu berriro bueltatuko nintzateke.

Gaztetan korrikalari fina izan zinen, ezta?

Junior mailan 12 lasterketa irabazi nituen, Memorial Mugerza, baita Behobia ere. Baina azken hau erreleboetan korritzen zen soldadu nintzen garaian. Real Sociedad taldean nenbilen, Aguilar eta Harorekin batera.

Ika Mika 

Isuna presoen eskubideak eskatzeagatik

Aurtengo urtarrilaren 27an Zubietako hipodromoan egiten den nazioarteko krossa zela-eta, Etxerat-ek, urtero bezala, kontzentrazio bat antolatu zuen euskal presoak Euskal Herriratzearen alde.

Kontzentrazioa, hipodromoko eremuan, sarrerako espaloi gainean eta inori oztoporik egin gabe igaro zen. Bertan helduak, umeak, gazteak... denera 75 bat lagun bildu ziren, baita Ertzaintza ere. Hauen asmoa hasieratik ekitaldia etetea eta zapuztea izan zen eta kontzentratuei probokatzen eta mehatxuka aritu ziren. Halere, probokaziotik ihes egin eta elkarteratzea istilurik gabe bukatu zen.

Baina kontua ez zen han amaitu. Izan ere, maiatzaren 8an Usurbilgo Etxerat-eko senitarteko batek 300 euroko isuna jaso

zuen ekitaldi hartan parte hartzeagatik. Ertzaintzaren buruak bidalitako espedientearen aurka hainbat errekurtsio tartekatu ondoren, ez dituzte alegazioak kontuan hartu. Segurtasun sailak soilik “Atestatu Poliziala” eman du ontzat eta erantzunean bere polizia guztiz inpartziala dela dio.

Usurbilgo Etxerat-ek “inpartzialtasun” hori erabat zalantzan jarri du, “tamalez Polizi Autonomo baskongadoak hainbat manifestazio eta protestaldiekiko, batez ere azken garaiotan izaten ari den jarrera erasokorra, begi bistakoa baita. Joan den larunbatean Bilbon gertaturikoa dugu horren azken lekuko lotsagarria”.

Etxerat

Borroka garaia da

Irailaren 27an Gudari Eguna dugu, aurren, gainera oso testuinguru berezian emango da. Azken hilabeteetan Espainiako gobernu faxistak zein hango indar politiko nagusiek Euskal Herriaren aurkako kontra-ofentsiba errepresiboa bortizki areagotu duten garaietan, hain zuzen.

Bikoitza da Euskal Herriaren aurkako erasoaldian Estatu espainolak izan duen porrota. Alde batetik, Estatu botereek uste izan zutelako 1978an inposatu ziguten marko juridiko-politikoaren bidez, lurralde zatiketa zein pozoindutako “autonomien” bidez, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka indargabetzea denbora kontua zela. Eta bestetik, tranpa autonomikoaren estrategia suntsitzailer hori erangikorra izan zedin, askatasunaren alde borrokan jarraituko zuen ezker abertzalearen aurka eta euskal herritar ororen aurka, errepresioa eta estatu biolentziarik gogorrena erabiltzeko hautu garbia egin zutelako. Hala ere, Estatu zapalkuntzari aurre eginez, Euskal Herriak aurrera egin du.

Argudiorik gabe gelditu dira behin-betiko Estatu espainola “zuzenbidezko estatu demokratiko” gisa aurkezten zigutenak. Zer erantzungo digute orain, behin eta berriro Euskal Herriaren eskubideak berreskuratzeko edo egoera “demokratikoki” aldatzeko Espainiaren legaltasunaren zirrikituak aipatzen zizkiguten horiek? 25 urteetan indarrean eta indarrez mantendu nahi izan duten iruzurra bertan behera gelditu da. Eta hala ere, bi proiektu oso nabarmen talka egiten ari diren honetan, Euskal Herriaren ukazioaren tresnarik eraginkorrena den Moncloako Estatutuaren garapenaz mintzo dira, edo txakur autonomikoak bidaltzen dituzte Ezker Abertzalea eta milaka herritar jipoitu eta Garzon epaile faxista espainolaren agin-

duak betetzera. Euskal Herriaren aurka Estatu makila eta PNVk azenarioa erabiltzen ari da. Eta tarteko helburuan bat egin dute: Ezker Abertzalea txikitu egin behar da. Ondoren, saiatuko dira itun politikoaren inguruko negoziazioak burutzen.

PNVren hautua larria da benetan, eta halaxe adierazi beharra dago. Ibarretxeri herri hau nora eramanezakeen ohartarazi nahi diogu. Denok dakigu Euskal Herriari aske izateko ordua iritsi zaiola, eraldaketarako garaia dela, eta horren aurrean tranpa politiko berri bat inposatzen saiatzea Euskal Herriaren aurkako traizio berria burutzea baino ez litzatekeela izango. Eta inolako zalantzarik gabe, gatazkaren luzamendua ekarriko lukeena.

Halako egoera politiko baten aurrean, ordea, ezin gara salaketa edo erantzuneko planteamendu hutsetara mugatu: Euskal Herriak alternatiba politiko argi bat behar du. Euskal Herriaren etorkizuna gatazka gainditzetik etorriko da. Eta horretarako ezinbestekoa den oinarria gure Herriaren eskubideak bermatuko dituen, Euskal Herri osoa bilduko duen eta euskal demokrazian oinarrituriko marko politiko berria behar da. Horixe da Ezker Abertzalearen eguneroko borroka, konpromiso eta eskaintza politikoaren funtsa; Euskal Herriak behar duen marko politiko berria eraikitzea nazio eraikuntzaren bidez, alegia. Eta hortik erantzungo diegu gogor eraso faxista eta zapalkuntza guztiei. Euskal Herria eraiki eta defendatu beharra dago! Eraikuntza eta borroka garaia dira Euskal Herriarentzat!

Jo ta ke Independentzia eta Sozialismoa lortu arte!



Txokoalde


EUKENE
CAMINO

Galardiko sarrera konponduko da

Halleluyah! Galardiko sarrera aldrebes eta arris-
kutsu horretan ibilgailuekin dugun arazoari
Usurbilgo udaletxean konponbidea aurkitu diotela
dirudi eta.

Txokoaldeko “arau subsidiarioen” berrazterketa zela eta, udaletxean ospatu zen bileran, talde erredaktatzaileak (Renedo eta Bravo arkitektoek) prestatutako aurrerapenean, azpiegituren atalean, azaldutako proposamena N-634 errepedea Aginagako erriberan barrena desbideratzea zen, bertako kaskoa libre utziz baina hau ez da onartu. Aginagako erriberak babesteko eskatuz hainbat iradokizun izan direlako.

Hala, talde erredaktatzaileak onartutako iradokizunak kontuan izanik eta Udalak emandako bestelako irizpideak aintzat hartuz, aurrerapen dokumentu berria prestatu zuen. Hau plenoak 2002ko uztailaren 26an onartu zuen. Dokumentu berriak honelaxe dio hitzez hitz: “talde erredaktatzaileak proposaturiko Aginaga igarotzen duen N-634ak planteatzen duen arazoaren saihezbideko soluziobidea ezabatzea, Txokoaldeko sarbidearen arazoari aurrez planteatutako lotunearen definizio berri batez irtenbidea ema-



nik". Beraz, auzo honetatik Usurbil alderako irtenbideari soluzioa emateko glorieta edo errotonda bat eraikiko da (argazkian, planoan).

Bestalde, bileran ziotenez, “Zarauztik Donostiarainoko Eusko Trenaren bidea bikoiztea azterketan egonik egungo sestra bereko igarobidea sahiesteko bidea lurrazpian sartze aukera (bi trenak “kruzea” egin ahal izan dezaten) aztertu behar omen da Txokoalden”.

Azkenik xehetasun txiki handi bat: Carlos Zabala ez da Txokoalden bizi (Noaua!k zioen bezala) Aginagan baizik. Oriak bereizten ditu bi auzo hauek.



Kaleberri

**EKIÑE
OLAIZOLA**

Herri giroa nabari

Pasa den astean, bertso afaria izan zen eta jendea oso gustura ageri zen. Hilaren 20ko bertso afari hau gaztetxearen beheko aretoan ospatu zen eta jende gehiegi egon ez arren, aretoa betetzeko adina herritar eta kanpotar bildu zen.

Jendearen parte hartzea eskertzekoa izan zen eta antolatzaileek lan ona egin zuten. Hori bai, usurbildarrontzat hain preziatua den afalordua ez zuen ezerk eten, ez eragotzi ere, ez baitzuen inork bertsoarako betarik hartu janaria mahaian zenetik; afalordua afaritarako eta ondorena bertsoarako.

Hau dela eta, berandu arte jardun ziren kantari Mantxi eta Epelde (nola ez, herritarren baten laguntzarekin) euren mikrofono eta guzti ingurukoek atseginez entzun zezaten.

Badirudi piskanaka-piskanaka, urteetan hain gaizki ikusia izan den UGA gaztetxea arrastoan sartzen hasia dela eta herritarrek ere, eskuzabaltasun handiagoz onartzen dutela. Ostiralean, behintzat, giro ederra sortu zen eta Bota Punttuba bertso eskolari zor zaio afari honen arrakastaren zatitxo bat.

Eskerrik asko!

Bestalde, herriko pilotalekuan ziren pilotariak herri giroa ekarri zuten, bertsoa hemendik eta pilota handik. Aitor Iturralde-Asier Portu bikotea kas-kar samar aritu bazen ere, partidu interesgarria jo-katu zuten eta Patxi Bengoetxea eta Adurrek ongi era-kutsi zuten euren maila. Hauen ondorengo laukotea ere, bikain aritu zen eta hauekin amaitu zen pilota jardunaldia.



Baserritarrak haserre

Agur bero bat lehenik eta behin guztioi. Ez da Aohikoa ni lan hauetan aritzea, baina perrexila saltsa guztietan omen, eta geu ere berdin. Badira egun batzuk dei bat jaso nuela: ea noizean behin auzoko kontuen inguruan hitz batzuk idatziko ote nituen galdegin zidan bestaldean zegoenak. Ez zitzaidan lan zaila iruditu eta baiezkoa erantzun nion. Beraz, lanean jarri naiz.

Uda amaitzeaz dugun honetan, uda deitzerik baldin badago behintzat, landa inguruko kontuak ekarri nahi ditut aipamenetara. Baserritarrekin hitz egiteko aukerarik izan badu inork, denak iritzi berdinekoak direla ohartuko da. Erabat erretxinduta dabilta guztiak ere; belarrak ontzeko arazoak, tomateak ezin gorritu, piper landareak ezin loratu,... arrazoi faltarik ba ahal dute? Ikustekoa izango da ea koartak edo tenporak nola geratzen diren eta zer nolako udazkena egiten duen.

Gaurkoa amaitzeko, badut kontu xeble baten berri emateko nahia. Txikitatik kontatu izan digute ipuinetan barraskiloak beraien etxea bizkarrean

daramatela eta halakorik. Baina, barraskiloen mundua ere aldatzen ari da! Badaramat bolada luze bat gutun bila buzoira joan eta denak zulaturik aurkitzen ditudala. Zer izango ote, eta, barraskilo koardila bat etxetxo bat egiten buzoian eta okupa gisa jarri dira. Horrela, postariak utzitako gutunak jan egiten dituzte, beti ere faktura potoloak baztertuz. Beraz, hauek ere etxetxoak ez, baina etxetzarrak nahiago dituztela ohartu naiz, pertsonen modura.

Lehenengo aldia izateko, nahikoa dela iruditzen zait, beraz, hurrengorarte. Aio!



Kalezar



MAIDER
MAKAZAGA

Irrist egitearen arriskua

Aupa lagunok, zer moduz zaudete? Uda pasa Ondoren hemen nauzue zerbait kontatzeko asmotan. Badirudi egun hauetan sentitu dugula udako eguraldia, bazen ordua!

Orain, udazkena bada ere, gozatzeko aukera izan dezagun, fruitu edo lekarik biltzeko baldin badago behintzat. Gutxiagorekin pasatuko baldin bagera ere goseak ez gara geldituko.

Auzo honetako belardi edo lorediei buruz aipatu nahi nuke zerbait. Aurtengo udan hainbeste euri egin duenez, Beheko Kaletik Ariztitxo kalera bitarteko eskailera oso arriskutsua egon da: lore edo zuhaitz txikiak erabat hazita zeuden, pasatzerakoan dena bustiaz eta hostoak lurrean irrista egiteko moduan. Tarteaz badira erori direnak ere (orain kolpeak sendatu egin behar).

Hala ere, gaur lerro hauek idatzi aurretik konturatu naiz bi aldeak moztu edo txukunduta daudela, horrela gora edo behera ibiltzeko ondo gelditu da. Honenbestez, mila esker txukundu dutenei.

Azkenik, lehengo alean Maria Jesusek aipatu

bezala, zaborte organiko baten beharra sumatzen dugu. Beti dago orduz kanpo ateratako poltsaren bat edo beste, gero katuen jostagarri direnak eta bero egiten badu usai txarra botatzen dute. Espero dugu gure eskariak zertxobait balio izatea.



Atxegalde



JONE
EIZMENDI



**AGURTZANE
SOLABERRIETA**

Santuenea

Giro ona nagusi festetan

Eguraldia lagun, festa atseginak igaro ditugu Lauzoan. Ibai Ondo elkarteko bazkideak jo ta su ibili dira asteburu osoan zehar, eta emaitza ez da nolanahikoa izan. Larunbatean gaztetxoek ez zuten aspertzeko unerik izan. Egun guztian zehar gaztelu puzgarriak eta giza-futbolina izan zituzten plazan. Egun osoko izerdiak eta nekeak lasaitzeko, aparretan blai egiteko aukera izan zuten, haurrak eta ez hain haurrak ere. Izan ere, lotsak alde batera utzita, umeen aitzakiarekin, asko izan baiginen aparraz gozatzeko aukera galdu ez genuenak.

Bitartean, auzoko muslariak nor baino nor aritu ziren elkartearen aurrean. 30 bikote inguru aritu zen karta jokoan, eta txapeldunak Anselmo eta Carlos izan ziren. Arratsean, Tximeleta txarangaren doinuak alaituta, sardin-jana, bapo egin arte! Gauean eta saioa ezin bukatuz, Imanol DJa izan genuen, bertan geunden guztiak dantzan jarritz, geratu ere egin gabe.

Igandeko eskaintza ere ez zen makala izan. Goizean herri-kirolak izan ziren plazan, aizkolariak



eta sokatira, besteak beste. Ondoren, auzo bazkaria eta eguna bukatzeko, auzoko piperrak dastatzeko unea. Goxoak bazeuden ere, tartean baziren ahoa bero-bero jartzen duten horietakoak.

Bi egun, baino nahikoa izan dela uste dut. Aspaldiko lagunak eta auzoko koadrilarekin egun atseginak igarotzeko aukera eskaini baitigute.

Bukatzeko, azken alean Agustinek idatzitakoari aipamen txiki erantsi nahi diot, Ibai Ondoko bazkideek hala eskatuta. San Inazio egunean eginiko bazkarian bost bazkide izan ziren omenduak: Agustinek aipatutakoak eta Juan Irazusta. Beraz, barkamenak Juani.

Jende ugari bisitan



**JOSEBA
ZUBELDIA**

Urdaiaga

Abuztuan eguraldi txarra izan bagenuen ere, A irailan nahikoa portatzen ari da. Jende gehienari oporrak amaitzea nahiko! Eguraldi onarekin batera, irailan ezkontza ugari izaten ari da, urte osoan bezala, San Estebango ermitan. Astebururo ezkontza bat edo bi ospatzea normala dela esan behar. Ospakizunaren ondoren plazan lasai egoteko aukera izaten dute bertara etortzen direnek, argazkiak ateratzeko aukera bikaina aprobeztatzuz.

Baina, bada ere beste arrazoi bat urte sasoi honetan eta eguraldi ona nagusi dugun honetan jendea gure auzora etortzeko. Intxaurreondoak eta beste zenbait fruitu arbola hasi dira dagoeneko beren fruitua ematen eta sarri ikusi daiteke jendea zuhaitz hauen azpian ale batzuk bildu nahian.

Beraz, esan behar irailan oso bisitatua izaten ari dela gure auzoa. Poza ematen du jendea inguruan ikustea, bizitasuna ematen baitio, normalean, lasaia den auzo honi.



Gora San Praxkuk!

Aurten, asteburu bakarra bada ere, lasai! Gero, negu aldera frontoiaren inaugurazio ofizialaren asteburua izango da eta.

Asteburu bakarra izanda, hasi pentsatzen lo egi-teko tarteak noiz izango dituzuen, lo egin behar bada behintzat... Izan ere, asko dira asteburu bakar batean aukeran izango ditugun ekitaldiak.

Umeen Egunarekin hasiko dira San Praxkuak urriaren 3an. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak 17:00ak aldera izango dira Aginagan. San Praxku egun handian, berriz, ohitura bihurtu da bi bertsolari hauen bisita: Joxe Lizaso eta Patxi Etxeberria mezan abestuko dute eta baita ondo-rengo hamaiketakoan ere.

Oilasko biltzaileen eguna izango da urriaren 5ekoa. Egun honetan ere omenaldia egingo zaie herriko preso eta gudari hilei 01:00ak aldera. Eta horrela urriaren 6a bitartean. Beraz, festarako aitzakia ugari aurtengo San Praxkutan.

Hala ere, obrak direla medio, barkatu beharko



duzue izan litezkeen "molestia" edo zikinkeria-gatik, dena ondo ateratzea zail samarra izango baita.

Ea ba, udara honetako eguraldi txarrari amaiera ematen diogun eta festetan hego haize epel-epela izaten dugun eta pixka bat gozatzen dugun!

Denok azaldu eta ondo-ondo pasa!

Poltsikoak bero-bero eginda etorri apaizak esaten duen bezala.

Aginaga



**OSKAR
SANTAMARIA**

Uraren arazoak

Ez dugu izan aurtengo udaran, eguzkia hartzeko aukera handirik. Izan ere, aurtengoa, inoiz baino ezeagoa joan zaigu, eta euri ugari izan dugu gure hondartzako planak askotan zapuztuaz. Beraz, aurtengoan, urtegiak, errekek eta iturriak urez estalita agertzen zaizkigu.

Hala ere, eta gezurra badirudi ere, Zubietan, udaran uraren mozketak izan dire hizpide. Baten batek galdetuko du, Zubietan mikroklima berezi bat egon ote den eta ea ez duen euriarik egin. Baina ez, hori ez da arazoa; izan ere, egun batean bai, eta hurrengoan ere, matxura ugari izan baitugu ur tutuetan. Ondorioz, hainbat egunetan eta zenbait ordutan, teknikoak konpondu bitartean, zubietar ugari egon dira beharrezko likidorik gabe.

Ez dago esan beharrik, egoera honek eragozpen haundiak eta haserre ugari sortu duela, egun askotxotan izan baitira matxura hauek. Dirudienez, Zubietan hornitzen duen tutu-sarea, zeharo zaharkiturik dago eta aldaketa bat eskatzen du, ez baita posible hainbeste arazo izatea hain denboara laburrean. Beraz, Zubietako Herri Batzarrari eta Usurbilgo Udalari

dagokie, azpiegitura horiek berritzeko lanei hasiera ematea, zubietarrok beharrezko zerbitzua izan dezagun.

Bestalde, eta gaia aldatuz, hasi da aurten ere Endika Abril erreboteko txapelketa. Aurtengoan, bederatzi taldek eman dute bere izena, eta taldeak bi multzotan banatu dira. Azken fasean, final erdiak eta finala jokatuko dira. Zubietarrek, talde bat osatu dute eta jadanik jokatu dute partidu bat eta irabazle izan ziren. Partidak, igande goizetan jokatzen dira, eta aurten finala, Villabonako plazan jokatuko da. Ezin da zehaztu zein egunetan, beti ere, eguraldiaren menpe baigau.




Zubietan



**MIKEL
BENGOETXEA**

Laster hasiko dira Kultur Etxeko obrak



Gorabeheratsua izan da Kultur Etxe berriaren adjudikazioa. Atzerapenez bada ere, udalak jada egin du obraren adjudikazioa. Azken udalbatzan zehaztu zen kontratatu den enpresaren izena. Baldintza pleguetan 18 hilabeteko epea zehaztu zen baina obrak bide onetik badoaz agian lehenago ere amaituta egongo da eraikin berria. 2004. urtean zabalduko ditu ateak. Beraz, oraindik zain egon beharko dugu.

Ale hau ixteko orduan oraindik ezezaguna zitzaigun udalbatzaren erabakia (irailaren 24an eginikoa). Dena den, jakin badakigu honakoan ez dela udalak deituriko lehiaketa hutsik geratu. Aurreko lehiaketan, akats bat medio, ez baitzen enpresarik aurkeztu. Udalaren pleguetan ez ziren onura industrial eta BEZ-a aurrikusi eta horregatik ez zen inor aurkeztu. Honek, bistan da, prozesu osoaren atzerapena ekarri zuen. Diru kontuetako akats hori konpondu eta uztailaren 26an udalak baldintza plegu berri bat onartu eta kontratazio jardunbidea martxan jarri zuen. Hiru izan dira uztailaren 26an deituriko lehiaketara aurkeztu diren enpresak: Amenabar, Ibargoiien eta Vazquez Rouco. Azken honen proiektuak ez zituen baldintza guztiak betetzen eta



KULTUR ETXE BERRIA EGITEN HASTEN DIRENEAN
NAHIKOA GORABEHERA IZANGO DA KALE HONETAN.

kanpoan geratu da. Amenabar eta Ibargoiien enpresen artean dago obraren adjudikazioa. Jakin badakigu, bien artean 8.588.620 pezetako aldea dagoela.

**2004. URTEAN
EZAGUTUKO DUGU
KULTUR ETXE BERRIA
IZANGO DENA**

Gainera, eraikitze-epean ere bada alde txiki bat: Ibargoiienek 14 hilabetetako epean egingo luke eta Amenabarrek,

aldiz, 16 hilabete t'erdi. Udalak, aldiz, Miserikordia izeneko eraikina eraberritzeko 18 hilabeteko epea aurrikusi zuen baldintza pleguetan. Dirutan ere, bi proiektuek udalak aurrikusitakoa baino baxuagoa da (1.547.645,07 euro). Arkitektoak eginiko txostena aztertu eta horren arabera hartu du udalbatzak azken erabakia.

Kontua orain bestelako da: orain arte "Miserikordian" egin den jarduera guztia non garatu al izango da epe honetan?

IMANOL UBEDA

ZINTZANGA
HERRIKO TABERNA
Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...
Telf. 943 36 02 17
Euskal presoak etxera!

**KALITATEKO
EUSKAL
OKELA**
**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**
**FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK**
CARNE DE VACUNO
DE CALIDAD
DEL PAIS VASCO
Behoko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

Euskaraz ikasteko eskaintza berezia egin zaie gurasoei

Euskararen erabilera sustatzeko egitasmo ugari dituzte Buruntzaldeako udalek. Horien artean, jakinarazi berri dituzten bi hauek: "Etzetik hasi behar delako" kanpaina eta "Buruntzaldeko aisiako gida".

Buruntzaldeko sei udalek, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilek, lankidetzat hitzarmena sinatu zuten 2002ko martxoan, euskara sustatzeko hainbat egitasmo elkarrekin garatzeko. Horien artean, "Etzetik hasi behar delako" eta "Buruntzaldeko aisiako gida" kanpainak.

Gurasoen hizkuntz gaitasunaren araberako sentsibilizazio kanpaina da "Etzetik hasi beharko" izenekoa. Haurrekiko zein jokabide izan adierazten da bertan, gomendioz beteta dago eta euskara sustatzeko zer egin eta nola hobetu daitekeen zehazten da bertan. Mezuak desberdinak dira, beraz, bikotekideak biak euskaldunak izan, biak erdaldunak izan, edota bata euskalduna eta bestea erdalduna izan. Adituen ustez, etxean eta aisialdian



GURASOEI ZUZENDUTAKO KANPAINA DA BURUNTZALDEAK AURKEZTU BERRI DUENA.

euskara bultzatzea funtsezkoa da.

Aholku hauekin batera, euskara ikasteko edota hobetzeko eskaintza berezia egiten zaie gurasoei, diru laguntzak eskainiz.

Aisialdi gida bat ere argitaratu da euskarazko aisialdiaren eskaintza eta eskaera bultzatu asmoz. Hamasei urtetik beherako seme-alabak dituzten etxe guztietara banatu da gida praktikoa, jarduera, ikastaro, lehiaketa eta zerbitzu ezberdinez osatua. Usurbil kanpoan geratu da lehen gida honetan, baina datorren urtetik aurrera gure herriko datuak ere bilduko dira gida horretan.

Ekonomi jardueren gaineko zergaren

ORDAINKETA

Udalak herritar guztiei jakinarazi nahi die urriaren 1etik azaroaren 11era bitarteko lanegunetan, biak barne, ordaindu ahal izango direla borondatezko epean Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren ordainagiriak. Irailaren 10a baino lehen helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kutxatik kobratuko dira zuzenean 2002ko urriaren 19an.

Helbideratu gabeak, ordea, zergadunak adierazitako helbide fiskalera bidaliko dira urrian zehar, udaletxeko zergabilketa bulegoan edo adierazten den edozein banku edo aurrezki kutxan ordainduak izan daitezten helbide fiskalera igortzen den ordainagiria erakutsi beharko delarik. Ordainketa banketxean egiten den kasuan, hurrengo urteetarako ordainagiriaren helbideratu edo domizilietzeko aukera izango duzu.

Egunero goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00arte zergadunak ordainagiriak ordaindu ahal izango ditu, igandeak eta jaiegunak izan ezik.

Urriaren 25a iritsi eta zergadunak (ordainagiriak domiziliatu gabe dituen kasuan), ordainagiria etxean ez badu jaso Usurbilgo udaletxeko zergabilketa zerbitzuan eskatu beharko du.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, Gipuzkoako Ogasun Foralak premiamendu bidezko jardunbideari ekingo dio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotek %20ko gainkargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.

Galdeiozu!!



USURBILGO UDALA

IKASTURTE BERRIAREKIN BATERA ATAL BERRI BATZUK JARRI DITUGU MARTXAN. "GALDEIOZU!!" AHOZKO ESAERAREKIN IZENDATU DUGUN HONAKO HAU, BESTEAK BESTE.

Aurreko alean aipatu bezala, udaletxeko politikari zein teknikariei nahi adina galdera egiteko aukera izango duzue aurrerantzean. Animatu!

Galderak Noaua!ra igorri behar dituzue eta guk egingo dugu herritarra eta udalaren arteko bitartekaritza lana. Nahi izanez gero, buruan duzun galdera edo kezka hori era anonimoan argitaratzeko aukera dago; hori bai, gutxienez Noaua!ko kide batek galdera egilea nor izan den jakin behar du. Idatzian zehaztu ondo zein den galdera edo kezka, eta ahal bada, nori edo zein batzordera zuzenduta dagoen.

Noaua! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil / noaua.k.e@euskalnet.net

Aukeran ikastaro ugari

AURREKO ALEAN HASTEAREN DIREN HAINBAT IKASTARO AIPATU GENITUEN: LANBIDE ESKOLARENA, AEKREN MATRIKULAZIO KANPAINA, MEMORIARENA... HONAKOAN ARTE MUNDUARI LOTURIKO BI IKASTARO JASO DITUGU.

Aterperen eskaintza anitza da. Susana Martin, esate baterako, hiru arlotan aritzen da: pintura, eskulana eta birziklapena edo erreatazioa. Urrian hasiko dira klaseak eta berarekin harremanetan jarri nahi baduzu deitu honako telefono zenbakira: 943 365 975.

Pintura ikastaroa 5 urtetik gorako haur eta helduei zuzendua dago. Susana Martinen ikasleek 3 dimentsio-tik 2 dimentsioetarako transizioa ikasteko aukera dute. Hala nola, espazioa eta koloreen tratamendua ere lantzen dute. Teknikan eta imaginazioan sakontzen

du Susanak, eta bere klaseetan gauzak kopiatu baino irudikatu egiten dira.

Eskulana eta erreatazioa, aldiz, helduei zuzenduriko ikastaroak dira.

Eskulanean izena ematen baduzu, Susanak egurrean edo telan gainean margotzen irakatsiko dizu. Baita bes-telako teknikak ere larruzko kareta egiten adibidez.

Interesgarria dirudi, halaber, erreatazio-ko ikastaroa. Etxeko altzariak berritzeko moduak, estiloa aldatzeko erak... dekorazio ikutua hartu diogu azken jardura honi.

Klaseak astean bitan izango dira. Irailaren 26an bilera bat egitekoak dira



SUSANA MARTINEN KLASAETAN BUZTINA ERE LANDU OHI DA.

egunak eta orduak zehazteko.

Ez ahaztu ikasturte amaieran erakus-keta bat egiten dela ikasleen lan guztiekin.



Aterpen ere bada klaseak ematen dituen beste artista bat, Pelex. Urrian hasik da klaseak ematen. Bide batez, aldame-neko irudia irudiaren berri eman nahi dugu: egurrez eginiko trikitilari hori Igeldoko baserri batek eginiko enkargua da. 2,05x0,80 metroko tamaina du eta uda honetako lan-egun asko kendu dizkio Pelexi. Ez da egiten duen tamaina honetako lehen irudia izan.

Baina urriatik aurrera eskainiko dituen klaseak dira bereziki aipatu nahi ditugunak. Taila eta erreatazioa dira Pelexen espezialidadeak.

Urrian hasi eta ekaina bitartean, astean bi egunez asko ikasi daiteke Pelexen alboan.

Hori bai, lanerako tresnak norberak eramane behar ditu, gerora, erabilgarri izango zaizkigu erreminta horiek.

Duela sei urte hasi zen klaseak eskaintzen eta gaur egun Orion eta Hernanin ere ematen ditu. Zur taila edota altzarien erreatazioa erakargarri bazaizu, badakizu nora jo (erreatazioa Susanak ere ematen du).

Izena eman nahi baduzu hona hemen Pelex irakaslearen kontaktua: 943 36 47 83 / 653 712 340. Ikasturte amaieran egin ohi den erakusketan ere parte hartu ohi dute Pelexen ikasleek.


TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Festa nagusi Santuenea auzoan

Giro ona nagusi izan zen Santueneako jaietan. Ibai Ondo elkarteak osaturiko egitaraua gustagattia izan zen. Batez ere, auzoko gaztetxoentzat. Baina orokorrean, pozik egoteko moduan daude. Datorrean gehiago!

Gaztelu puzgarrian eta giza-futbolina izan ziren festetako izarrak. Arrakasta handia izan zuten eta baita aparrak ere.

Helduek ere ondo pasatzeko motiboa bazituzten. Aitzakia ederra auzokoe-kin bildu eta festa giroaz gozatzeko. DJ Imanolek alaitu zituen larunbat gaueko ordu txikiak.

Hurrengo egunean ikustekoak izan ziren Iparraldeko herri kirol saioak. Igandeko auzo bazkarian ere festagi- roa nagusi izan zen. Azkenik, buru- haundien saioarekin amaitu ziren festak.

Aipatzekoa, aurtengo edizioan Ibai Ondo elkarteak hartutako lanak.



UMEAK GUSTURA IBILI ZIREN PUZ-
GARRIETAN ZEIN APARRETAN.



ZENBAITZUK SERIO HARTU ZUTEN
MUS TXAPELKETA.

URRIAREN 7AN HASIKO DA KATEKESIA

Salbatore Parrokiak martxan jarri du katekesiaren ikasturte berria. Lehen eta seigarren maila bitarteko haurrei zuzenduta dago eta izen- ematea Parroki Etxean egin beharra dago. Gurasoek egin behar dute tra- mitazioa eta nahiz eta iaz ere parte hartu, aurreko berriro ere eman behar da partehartzailearen izena.

BEGIRALE IZAN NAHI AL DUZU?

Ttakun Kultur Elkarteak begirale izateko ikastaroa antolatu du. 200 orduko ikastaroa izango da. Gehienez 30 ikasle hartuko dira eta ia saio guztiak larunbatetan egingo dira. Lasarte-Orian egingo da ikasta- roa eta eskolak Urtxintxak Atialdiko Eskolako begiraleek emango dituzte.

Ikasturte amaieran, Eusko Jaurlaritzaren aisiako begiraltzako titulu ofiziala eskuratuko dute. Argibide gehiago jaso nahi badituzu deitu Ttakun elkartera: 943 371 448. E-mail: aisia@ttakun.com. Prezioa, 190 euro eta osorik edo bi erditan ordaindu daiteke.

AZOKA BEREZIA, URRIAREN 13AN

Bertako produktuen erakustazoka urriaren 11n izango zela iragarri bagenuen ere, urriaren 13an, igan- dez, egingo da.

Faxismoa salatzeko eginiko mobilizazioa



Pasa den astean egindako mobilizazioaren irudia duzue haxe. Manifestaldiaren ondoren errepidearen alboan ipini ziren "Euskal Herria aurrera!! Faxismoari Stop! "lema jasotzen zuen pankartarekin.

Gudari eguna dela eta, beste hainbat ekitaldi egingo dira datozen egunotan.

GALARRA GARRAIOA

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Zuzendari berriarekin hasi da ikasturtea Udarregin

IAZKO IKASTURTEAN JASO ZUEN UDARREGI IKASTOLA ZUZENTZEKO PROPOSAMENA. IKASTOLAREN EGITASMOA ERAKARRITA IRITSI DA 47 URTEKO DONOSTIAR HAU GUREGANA. DONOSTIAKO ZURRIOLA IKASTOLAKO ZUZENDARITZA UTZI ETA JADA BURUBELARRI MURGILDU DA GURE IKASTOLAKO ZEREGINETAN. ILUSIOZ ETA LAN EGITEKO GOGOZ ETORRI DELA ZIURTATU DIGU XABIN AIZARNAK.

Lehenik eta behin, aurkeztu ezazu zure burua.

Duela 26 urte hasi nintzen irakaskuntzan; 1976an, Oreretako ikastolan. 5 urtez batxilergoko zuzendaria izan nintzen eta 1985ean Donostiako Zurriolako ikastolara joan nintzen. Han zuzendari orokorra izan naiz azken 15 urtez. Iazko gabonetan Udarregiko batzordeko guraso batek hots egin zidan esanez Udarregi zuzendari baten bila zebilela eta ea interesatuko ote litzaidakeen. Elkarrizketan hasi ginen, Udarregiren hezkuntza proiektua, barne-araudia, estatutuak eta, orohar, dokumentazio guztia utzi zidan. Berehala identifikatuta sentitu nintzen hemengo hezkuntza egitasmoarekin. Guztia irakurri ondoren batzordekoei eskatu nien erantzuna eman aurretik beraiekin hitz egin nahi nuela, barneko funtzionamenduaz eta baita irakasleen ordezkariekin. Guraso eta ikasleen ordezkariekin hitz egin eta baiezkota eman nuen proiektuak erakartzen ninduelako.

**Badakigu abuztuan jada lanean zinela. Egokitu al zara lanpostu berri-
ra?**

Orandik egokitzen. Badira gauza batzuk ikastola batetik bestera errepikatzen direnak eta horiek menderatzen ditut. Baina testuingurua oso ezberdina da eta orduan zenbait gauza ez ditut menderatzen. Esan behar dut jasotzen ari naizen laguntza bai irakasleen aldetik eta bai batzordeko gurasoen aldetik oso eskertzekoa dela. Zenbait gai menderatzen ez ditudalako, eta asko laguntzen ari zaizkit.

Egia da lehenago etorri naizela baina hori nire eginkizunetan sartzen den zerbait da. Zuzendaria bazara gai guztiak ezagutu behar dituzu.

Ikasturte berriarekin beti zehazten dira egitasmo edo proiektu jakin batzuk. Zeintzuk dira Udarregik dituen erronka nagusiak epe erdira edo luzera begira?

Epe motzera, bi erronka handi ditugu: lehena, 0-16 urte bitarteko hezkuntza proiektua Usurbil herriarentzat burutzea. Honek zera esan nahi du: Udarregi ikastolak ditu Haur Hezkuntza (HH), Lehen Hezkuntza (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH). Irakaskuntza arautuan, hiru eta 16 urte bitartean. Orain Eusko Jaurlaritzak 0-3 urte bitarteko zikloa arautu nahi du, Haur Hezkuntzako lehen zikloa. Ziklo hori hiru urtekoa da eta arautzeaz dago. Udarregik bi urteko umeentzako gelak dauzka Hezkuntza Sailaren ezagutzapean baina arautu gabek. Horregatik ez du dirulaguntzarik jasotzen gela horientatik; beste ikastetxe guztiak bezala. 0-3 urte bitarteko zikloa jarri bezain laster 0 urtetik 16ra bitarteko proiektua gauzatuko genuke. Horretarako Usurbilek baldintza oso egokiak dauzka: bata, ikastola bakarra gara. Bi, haurtzaindegia bakarra dago; eta hiru, laguntza handia ematen duen udala dugu. Bai Udarregiri bai haurtzaindegia-ri. Esate baterako, egoitzak udalarenak dira, mantenua eta garbiketaren zerbitzua eta langilegoa udalaren esku dago eta gastu orokorrak ere bere gain hartzen ditu -argia, ura, telefonoa eta abar...-. Honekin esan nahi dut udalari esker



handi bat zor diogula eta horrez gain bere jarrerarengatik uste dut proiektu hau gauzatzea posible litzatekeela. Funtsean hau egin beharko litzateke: haurtzaindegia-ekin bildu eta udalaren babesean eta Eusko Jaurlaritzaren babesean hezkuntza proiektu komun bat burutu. Horretaz aparte, gaur egun bi ikastetxe diren artean kontsorzio izeneko erakunde bakarra eratu. Bide batez, erakunde berri horren bideragarritasun ekonomikoa aztertu beharko genuke. Ere laborala ere begiratu beharko genuke.

Zein da bigarren egitasmo nagusia.

Hau ere oso garrantzitsua da eta oso aipatua izan den kalitate legea da. Datorren ikasturtean jarriko da indarrean eta horrek aldaketa batzuk ekarriko ditu. Ezinbestez aurrean legea aztertu



**XABIN AIZARNA
ZUZENDARI BERRIARI
LAGUNGARRI EGIN
ZAIO GURASOEN ETA
IRAKASLEEN BABESA.**

beharko dugu eta gure eskaintza lege horren baldintzetara egokitu beharko dugu. Datorren ikasturterako eskaintza ahalik eta sendoena egin beharko diegu. Gaur egun indarrean dauden proiektuen jarraipena ere egingo dugu.

Zeintzuk dira proiektu horiek?

Ele Anitz programa, 4 urtetik aurrera ingelera ikasteko aukera. 4, 5 eta 6 urtekoak ari dira Ele Anitz programa honen barruan. Urtetik urtera maila bat gehitzen zaio proiektuari. Beste bat IKT proiektua litzateke: Informazio eta Komunikazio Teknologien hornidurarekin jarraitzea eta

erabilera didaktikoa sustatzea. EFQM delako kudeaketa eredua ikastolan hedatzea, ikastolaren egoitza eta instalakuntzak hobetzen jarraitzea (Agerialdeko gelak berri egin dira uda honetan). Eta azkenik, aurreko urtean guraso eta irakasleei galdeketa batzuk pasa zitzaizkien eta horrekin guraso eta irakasleen asekabetze maila neurtu nahi zen. Neurketa haren ondorioz bai gurasoek bai irakasleek proposamen batzuk luzatu zizkiguten eta proposamen horiek aztertu eta indarren jarri nahi ditugu. Aurten DBHko ikasleei ere galdeketa bat ere egingo zaie, hemen inportanteena ikasleak beraiek dira.

“Bat gatoz Noaua! Txiki orriarekin”

Aurreko alean atal berri bat jarri genuen martxan: Noaua! Txiki tartea, Alkastolako ikasle eta Usurbilgo gaztetxoei zabaldu diegun atala hain zuzen. Xabin Aizarnak begionez hartu zuen gure proposamena eta horri esker Udarregi ikastolarekin ari gara elkarlanean. Bide batez, herriari ikastola zertan ari den jakinarazteko tarte egokia izan daiteke hamabostero aldizkarian bertan argitaratuko dugun Noaua! Txiki orrialdea.

KILOMETROAK FESTARA JOATEKO AUTOBUSAK

O hiturari jarraituz, urriaren lehen igandean ospatuko da Kilometroak eguna, honakoan, urriaren 6an. Edizio honetan aukeratu den lema hauxe izan da: “Elkarren beharrean”.

Autobusez joan nahi baduzu ez utzi azken ordurako eta izena eman urriaren 4a, ostirala, baino lehen. 19:00etan amaituko da zerrendan apuntatzeko epea. Izen emate orriak ikastolan eta honako taberna hauetan ipiniko dira: Txiribogan, Aitzagan eta Txirristan.

Autobusa urriaren 6ko goizeko 9:00etan irtengo da eta itzulera 19:00ak aldera egingo da. Autobusak udaletxe aurretik irtengo dira.

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

Losu

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

**txirriStra
TABERNA**



- Plater konbinatuak
- Ogiltarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Telf: 936 36 04 66

N•I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Zubiaurrenea, 5 - 1.a
Tel.: 943 36 19 51

Iñaki Errasti

ZURRUMURRUA ZABALDU BADA ERE,
GEZURRA DA CASTROREKIN FITXATU DUENIK

Amaitu da arraun denboraldia. Inoizko polemikoena izan dela esan daiteke. Baina ika-mikak ez dira soilik talde edo herrien artekoak izan. Antolaketa ere izan da gorabehera eta istilu ugari. Hori guztia pasa da aurtun. Kantabriarrak eta galizarrak sorpresa izatetik faborito izatera pasa diren honetan, euskal taldeen artean hausnarketa garaia zabaldu da. Gorabehera, ika-mika eta zurrumurruak ere harrapatu dute bete-betean Iñaki, Orioko arraunlaria. Kontxako bigarren saioan ez zen itsasoratu eta segituan Castorako bidea egina zuela zabaldu zen. Hori ez dela egia eta Orion gustura dagoela aipatu digu.

Korapilatsua izan da aurtengo denboraldia, ezta?

Gauzak ez zaizkigu uste bezala ateratu. Gehiago ibiltzea espero genuen eta ez dugu lortu. Ez dakigu zein motiborengatik baina garbi daukagu iaz baino gutxiago ibili garela aurtun. Taldea igualtsua zen, entrenamenduetan ustez ondo ibili gara baina ez gara nahi bezala aritu.

Gainbehera azken momentuan eman da gainera.

Hasieran lau bat estropada irabazi genituen, Gipuzkoako Txapelketa,




IÑAKI ERRASTI AURTENGOA AHAZTU ETA DENBORALDI BERRIARI EKITEKO GOGOZ SUMATU GENUEN.

Euskadiko Txapelketa eta Zarautz eta Zumaiako estropadak. Hori irabazi bai baina sentsazioak ez ziren iazkoak. Kontxan ez ginen ondo ibili eta Bermeon moralaz gaizki geunden.

Hala ere, BBK bandera irabazi zenuen. Dena den, diru gehien dutenak izan dira denboraldian ondoen ibili direnak, ezta?

Bai, Castoren adibidea horixe da. Duela hiru urte inork ez zituen ezagutzen. Urdaibai ere fitxaketak eginda,



ikusi dugu aurtun goian egon dela.

Giroa ere pil-pilean izan da.

BBK banderan gertatutakoa ikaragarria izan zen. Pankarta eta txistuka aritu ziren, eta txokearen kontuarekin "asesinos!" ohiuka ere aritu ziren. Dena den, aurtun lotsagarriena da urte osoan egutero entrenatzen pasa eta gero estropadak ailegatu, ziaboga ematera joan eta baliza faltan! Barku bat arraun eremuan sartu eta geratu beharra.... Aurtengo gehiegizkoa izan da. Antolaketa gauza asko hobetu daitezke.

Kontxako estropadan bigarren igandean ez zinen ateratu. Zergatik?

Entrenatzaileak eman zidan arrazoia, bandera oso zaila zegoela irabazteko eta urte osoan entrenatzen egon diren ordezkoei ere aukera eman nahi ziela.

Hori gogorra izango zen zuretzat?

Bai, hala da. Gogo gehienarekin jokatzen duzun estropada eta horren zain zaude, eta gero kanpoan geratzeak min ematen du.

Hurrengo egunean Castorekin fitxatu zenuela zabaldu zen.

Ez dakit nondik ateratu den. Nik ez dut inorrek hitz egin eta niri inork ez nau deitu. Castor etxea ere jarri zidala entzun zuen amak. Nik oraingoz Orion jarraitzeko asmoa dut.

ARRAINDEGIA
PELLO
Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL

ESTETIKA ZENTROA
LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurreko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87

HAUR JANTZIAK
Pauma
Kale Nagusia, 2
Tel. 943 36 59 43

Kiroldegiko eskaintza berritua izan da

Zehaztu dira jada ikasturte berriko hainbat kirol jardueren ordutegiak. Gimnasia, aerobik eta igerilekuko egunak eta orduak aurreratzeko moduan gara. Urritik aurrera indarrean izango diren prezioak oraindik zehazteke daude. Datorren alerako bilduko ditugu.

Gimnasia eta aerobik dira kiroldegiko jarduera ohikoenak, denboraren poderioz finkatuz joan direnak. Gazte eta helduentzako eskaintza honakoa izango da 2002/2003 ikasturtean:

Gimnasia egiteko bi aukera: astelehen, asteazken eta ostiraletan 9:30etarako talde bat osatu da. Bigarrena, egun horietan baina arratsalde, 17:30etan.

Aerobik egiteko, aldiz, aukera gehiago dago. Astean hirutan egin nahi duenak (astelehen, asteazken eta ostiralek) goizeko 9:30etan edo arratsaldeko 18:30etan. Baina bi egunetako ikastaroak ere badira, asteartez eta ostegun, 19:30etan lehena, 20:30etan bigarrena.

Matrikulazioa irekita dago gazte zein helduentzat. Kiroldegira hurbildu edota telefonoz ere egin dezakezu aipatu matrikulazioa: 943 37 24 98 telefono zenbakian.



Gazteteontzako igeriketa ikastaroak ere badira. Eskaintza zabala da: has-tapen saioak egunero, 3-7 urte bitartekoentzat. Igeriketan sakondu eta ondo pasa nahi dutenentzat, ur ludoteka astean bi egunetan. Igeriketa eskola, berriz, serioago hartzen dutenei zuzendua dago eta astean bi egunetan ematen da.

Helduek ere hastapen eta hobekuntza ikastaroak dituzte aukeran.

Aurtengo igeriketa eskaintzak hiru berrikuntza izango ditu: mantenu igeriketa talde bat osatu nahi da, helduei zuzendua. Bigarrenik, haurdunen igeriketa talde bat ere egin nahi da, haurra zein amarentzat onuragarria dena. Eta azkenik, igeriketa terapeutikoa ere jorratu nahi da arazo fisikoak dituzten guztiekin.

BEHOBIARAKO KAMISETA

Aurrekoan azaldu bezala, Behobia-Donostiako lasterketarako kamiseta bat atera nahi da. Horietako bat eskuratu nahi baduzu kiroldegitik pasa beharko duzu dagokizun neurria zehaztera. Eskaera egiteko irailaren amaiera bitarteko epea jarri da. Prezioa 18 euro.

“ESKOLA KIROLA”

Hasi da ikasturtea eta aurrekoetan bezalaxe abian da “Eskola-Kirola” egitaraua. Udarregi Ikastolak, Kirol Patronatuak eta kirol taldeek elkarlanean antolatzen duten ekimenaren baitan hainbat kirol jarduera biltzen dira.

Aurten kirol taldeek egingo dute haur bakoitzaren kuotaren kobraketa. Monitoreak kirol elkarteek jarriko dituzte eta urte osoko jarraipenaz arduratuko dira. Era honetan, zerbitzuaren kalitatea hobetu nahi da. Kirol txapelketak urriaren 20an hasiko dira.

PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK, IRAILAREN 27AN

Herriko pilota txapelketaren finalak irailaren 27an jokatuko dira. 22:00etatik aurrera jokatuko dira infantil, jubenil eta helduen mailako finalak.

Hurrengo saioak !!

FUTBOLA

Irailak 29

Emakumezkoen liga: Usurbil FT - Amara Berri KE.

Erregionala 2. maila: Amara Berri KE - Usurbil FT.

Kadeteen 2. maila: Usurbil FT, atsedena.



Urriak 6

Emakumezkoen liga: Groseko KE - Usurbil FT.

Erregionala 2. maila: Usurbil FT, atsedena.

Kadeteen 2. maila: Usurbil FT, S. Tomas Lizeoa B.


PELOTA

Irailak 27

Herriko Pilota Txapelketa: 22:00etan finalak. Infantiletan, Olaizola-Iratorza / Esnaola-Bengoetxea. Jubeniletan, Orena-Iraola / Bengoetxea-Urkia. Helduen artean, Sancho-Landa / Errasti-Arruti.

Urriak 5

Gipuzkoako klub arteko txapelketa: 19:00etan, jubenilak Azkoitiaren aurka. Helduak banaka, Hernaniren aurka. Helduak binaka, Zumarragaren aurka.



Aginagan eta Zubietan



Zubietako ikasleek ez dute txintxo aurpegirik!


Aginagako ikasleak pozik ziren argazkia ateratzera joan ginen egunean. Marianen urteak ziren eta hamaiketako ederra eraman zuen lagun guztientzat.

Zubietan, berriz, medikuaren bisita jaso zuten baina gero



Aginagan alai-alai topatu genituen. Atsedenaldia zen...

Sei alde edo desberdintasun daude bi marrazki itxuraz berdinen hauen artean.




Lehiaketa !!




UDA HONETAN FESTATRIK
FESTA IBILI DA BIKOTE
EZAGUN BAT GURE
ARTEAN.
BA AL DAKIZU NORTZUK
DIREN?

Asmatzaileen artean liburu bat zozketatu
dugu, Yasar Kemal-en "Zanpa ezak sugea"
(Txalaparta argitaletxea).

Aurreko lehiaketaren emaitza



LEIHO HAUEK DAUDEN
ETXEAREN IZENA JAKIN NAHI
GENUEN, ERANTZUNA HAUXE:
KONTSEJU



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.47	11.03	11.20	11.08	11.24	11.39
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	20.33*	20.50*	20.38*	20.54*	21.09*
20.47	21.03	21.20	21.08	21.24	21.39
21.47	22.03	22.20	22.08	22.24	22.39
			22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Goardiako farmaziak

- **IRAILAK 27, OSTIRALA**
E: **Urbistondo** San Frantzisko, 1 Lasarte
G: **Iturralde** 13 Poligonoa, 9 Usurbil
 - **IRAILAK 28, LARUNBATA**
E: **Vidaur** Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte
G: **Bilbao** Urbietta, 7 Hernani
 - **IRAILAK 29, IGANDEA**
E: **Vidaur** Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte
G: **Bilbao** Urbietta, 7 Hernani
 - **IRAILAK 30, ASTELEHENA**
E: **Vidaur** Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte
G: **OA** Kontzeju Zarra, 11 Usurbil
 - **URRIAK 1, ASTEARTEA**
E: **De Miguel** Kale Nagusia, 32, Lasarte
G: **Tanco** San Juan, 36 Urnieta
 - **URRIAK 2, ASTEAZKENA**
E: **Rodriguez** Kale Nagusia, 42 Lasarte
G: **Chucua**, Kardaberaz, 48 Hernani
 - **URRIAK 3, OSTEGUNA**
E: **Gil** Kale Nagusia, 24 Lasarte
G: **Correa** Perkaiztegi, 8 Hernani
 - **URRIAK 4, OSTIRALA**
E: **Acha-Orbea** Hipodromoa etorbidea 6, Lasarte
G: **Aizpuru** Latxunbe Berri, 11 Hernani
 - **URRIAK 5, LARUNBATA**
E: **De Miguel** Kale Nagusia, 32, Lasarte
G: **Etxebeste** Elkano, 2 Hernani
 - **URRIAK 6, IGANDEA**
E: **De Miguel** Kale Nagusia, 32, Lasarte
G: **Etxebeste** Elkano, 2 Hernani
 - **URRIAK 7, ASTELEHENA**
E: **Urbistondo** San Frantzisko, 1 Lasarte
G: **Bilbao** Urbietta, 7 Hernani
 - **URRIAK 8, ASTEARTEA**
E: **Vidaur** Jaizkibel Plaza, 2 Lasarte
G: **Aizpuru** Latxunbe Berri, 11 Hernani
 - **URRIAK 9, ASTEAZKENA**
E: **De Miguel** Kale Nagusia, 32, Lasarte
G: **Bulnes** Etxeberri, B Florida auzoa Hernani
 - **URRIAK 10, OSTEGUNA**
E: **Rodriguez** Kale Nagusia, 42 Lasarte
G: **Bulnes** Etxeberri, B Florida auzoa Hernani
 - **URRIAK 11, OSTIRALA**
E: **Gil** Kale Nagusia, 24 Lasarte
G: **Ansa** Ondarreta, Andoain
- E: egunez G: gauzez (21:00etatik 09:00etara).
E/G: Egunez eta gauzez

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.20	09.30		08.15	08.35		09.00
09.00	09.25	09.35	09.55	08.45	09.05	09.30	
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05		10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55#	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00:00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02:00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04:00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06:00		06.25	06.45				

**Aiarraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

*Aiatic dator ■ Astegunetan
■ Soilik ■ Larunbat
■ larunbata gauzez ■ lanegunetan

Udaltzaigoaren ordutegia

- **ASTEGUNETAN**
6.00/22.00
 - **ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN**
7.00/22.00
- GAINONTZEKO ORDUAK TELEFONAZ
ATEA ITXITA AURKITZEN BADUZU
DEITU TELEFONO HONETARA
943 361 112
656 799 850

Datorren Noaua!

Urria						
Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

● Hurrengo alea

Bai esan?

- **Udala**..... 37 19 51
- **Udaltzaingoa**..... 36 11 12
- **Obrak eta Zerbitzuak**..... 37 01 48
- **Anbulategia**..... 36 20 13
- **Udarregi ikastola**..... 36 12 16
- **Udarregi (Kalezar)**..... 36 45 00
- **Agerialde ikastetxea**..... 36 38 95
- **Oiardo kiroldegia**..... 37 24 98
- **Zumarte**..... 37 15 94
- **Etumeta**..... 37 20 01
- **Taxi geltokia**..... 36 21 78
- **D.Y.A.**..... 46 46 22
- **Ertzantza**..... 112
- **Suhiltzaileak**..... 112
- **Larrialdia**..... 112
- **Anbulantziak**..... 112
- **Posta Kutxa**.....
- **Gure Pakea**..... 37 32 28
- **Gure Elkartea**..... 37 17 51
- **Arrate egoitza**..... 36 63 40
- **Eusko Tren**..... 47 09 76
- **Noaua! aldizkaria**..... 36 03 21
- **Bake epaitegia**..... 37 23 36
- **Oa farmazia**..... 37 60 76
- **Iturralde farmazia**..... 36 33 95
- **Zubietako Batzarra**..... 37 20 77
- **Argindarra (Iberduero)**..... 47 09 76

Oharrak

Txerrimunik ordainetan

ETXEBIZITZA

- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke.
Telf: 943 364469.

- Baju edo ganbara bat erosiko nuke.
Deitu iluntzean. 943 36 02 13

SALEROSKETA / GARAJEAK

- Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424

- Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.

- Garaje itxia salgai Etxealdian.
943 373185 telefonora deitu.

- Txaramuton 30 m2-ko garaje itxia. 26.821 eurotan salgai.
Deitu 666 646 847 zenbakira.

- Galtzaragaina elkartearen bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.

- Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreraren). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09

- Galtzaragainen 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.

- Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).

- Pertsona bat eskaintzen da arratsalde bi orduz umeak zaintzeko.
Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).

Lan-eskaintzak

- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.

- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Irailtik aurrera, 9:00etatik 14:30etara.
943 360 096 /650 947 142.

- Udarregi ikastolan ikasturte berrirako kirol begiraleak behar dira.
Telefonoak: 943 361 216/ 943 370 645.

- Tabernari bat behar dugu.
Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.

- Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu
943 36 00 80 telefonora.

- Tabernari bat behar dugu Antxeta Jatetxean lan egiteko. Deitu:
943 370 344.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.

- Ford Escort bat salgai. SS-AJ, motorra berritua. 100.000 pta edo 601euro. Tf: 943 650619.

- Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).

- Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15' llantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Telefonoa: 649 322 873.

- Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.

- Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.

- Txakurkumeak salgai. 3 hilabeteko setter ingelesak; desparasituak eta bakunatuak. Guraso ehiztariak. 180 euro. Tel: 679 207 156.

- Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa.
Tel.: 943 37 03 59.

- Andazpe elkartearen bazkideak behar dira. Baldintzak jakin nahi badituzu deitu: 943 36 54 66.

- 100 litro esne pilatzeko eta fresko mantentzeko "Etxe-hotz" markako tankea eta behiak jeisteko "Euromilk" markako motorra salgai daude. 943 364 542 (Felix, Nekane).



Zorionak **Julen!**
Gure mutil kozkorak 5 urte bete ditu, alajaina! Zorionak Julen.



A ze pareta,
Albaro eta **Jose Luis Bruño!**
Irailaren 20an zenbat urte?
Ea norbaitek asmatzen duen. Gu bitartean postrearen zain geldituko gara. Zorionak etxekoan partez.



Zorionak **bikote!**
Zorionak etxeko guztien partez. Irailaren 29an 89 urte eta urriaren 10ean 11 urte beteko dituzue. Ondo pasa, baina ez ahaztu txan-paina...

JAIOTZAK

- **Unax Labaka Zubimendi.**
2002-IX-11. Erdiko Kale.

- **Intza Peña Ikutza.**
2002-IX-1. Aginaga.

- **Aitor Iñarra Gonzalez.**
2002-VII-29. Erreka Txiki.

HILDAKOAK

- **Idoia Areitioaurtena Mendizabal.**
2002-IX-1. Usurbil.

Oharrak, doaneko zerbitzua:

Noaia! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
noaia.k.e@euskalnet.net

Agenda !!

IRAILAK 27 - ostirala

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada Etxerat!-ek antolatuta. Arratsaldeko 19.30etan.

- Gudari Eguna dela eta, manifestazioa Jose Martin Sagardia plazan, udaletxe aurrean, 20:00etan.

IRAILAK 28 - larunbata

Nafarroa Oinez-en aldeko herri bazkaria Aitzaga elkartean. Menua hauxe duzue: entsalada berezia, marmitakoa, postrea, kafea, purua. Bazkari-txartelak salgai izango dira irailaren 25a bitartean, 13 eurotan, honako tabernotan: Txirristra, Txiriboga eta Aitzaga.

URRIAK 2 - asteazkena

- Asteroko azoka Askatuna plazan, goizez.
- San Markos Mankomunitateko birziklapen ibilgailua pasako da.

URRIAK 2/6

- Aginagako festak. Egitaraua ikus erdialdeko gehigarrian.

URRIAK 6 - igandea

- Kilometroak 2002 Zumarraga-Urretxun. 9:00etan irten eta itzuli 19:00ak aldera. Autobusak udaletxe aurretik irtengo dira. Izena emateko urriaren 4a baino lehen Ikastolako idazkaritzan, Txiribogan, Aitzagan eta Txirristan.

URRIAK 13 - igandea

- Bertako produktuen erakustazoka Usurbilgo plazan.

Musikaren Txokoa



FMren "In-komunikazioa"

Kalean da Fermin Muguruzaren disko berriena. Bakarkako lehen esan genezake. Izan ere, atzean utzi du Dub Manifest taldea eta orain bere izena baino ez da ageri diskoaren kredituetan. Nazioarteko kutsua du lan honek, parte hartu duten musikarien artean atzerritarrak daudelako. Etxekoan artean, nabarmen-tzekoa Mikel Azpirozek eta Joseba Tapiak hartu duten protagonismoa. Ez dira kantu batera mugatu eta abesti batzuetan gainera pisu handia eman die. Fermin Muguruza plazara irten zenetik hauxe da bere lanik pertsonalena. Zapore jamaikarreko



lana baina soul, rap, drum'n'bass, dub eta bestelako doinuez osatua.

Aurrerapen kantua diskoari izenburua eman diona izan da, "In-komunikazioa" abestia. Baina badira kantu politagoak diskoaren baitan.

Irudia beti oso garrantzitsua izan da Fermin Muguruzaren ibilbidean. Aipatzekoa promozioan lagungarri egingo zaion bideoklipa. Bideoarekin gaur egungo giza erlazioen izaeraren inguruko hausnarketa bat izan nahi du. Lan honen errealizazioa Iker Trebiñok burutu du eta Legaleon T antzerki taldeak sketch ezberdinez osatu du eszenifikazioa.

Egin kontu !!

1955 urtean jaiotakoak Sekañan bilduko dira

Bai, ondo irakurri duzue. Beraz, urte horretan jaiotakoek egun atsegin bat igarotzeko arrazoirik badute. Gainera, aspaldiko lagunekin biltzeko aitzakia izaten dira egun hauek. Urriaren 19rako egin dute hitzordua, garai batekoak eta gaur egungo kontuak gogora ekartzeko moduko festa.

Afaria Sekaña jatetxean izango

da. Hori bai, izena eman nahi duenak astebete lehenago egin beharko du.

Josune Aranburuk pozik hartuko ditu 55eko kintoen deiak honako telefono zenbakian: 943 37 26 46.

Beraz, ez utzi azken ordurako eta deitu ahalik eta azkarren aipatu dugun telefono zenbaki horretara.

Hurbiltzen zaretenak, ondo pasa!

P A T R I
J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Kalkos kopisteria

- Fotokopiak
- Fotokopiak koloretan
- Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- Planoen kopiak (AO arte)
- Ordenadoreko lanak
- Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburuak)
- Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
BERRIKUNTZA

www.noaia.com

Noaia! hamaboskaria on-line

:: Usurbil

- ... Historia
- ... Kokapena
- ... Auzoak
- ... Artea
- ... Herriko produktuak
- ... Sagardoa
- ... Angula
- ... Errebotea
- ... Jai aipagarriak
- ... Zerbitzuak
- ... Ibilbide interesgarriak
- ... Apunte interesgarriak
- ... Herriko taldeak
- ... Bai, esan? Telefono
- ... interesgarriak

:: Kultur Elkarteak

- ... Nor gara?
- ... Udal-Fototeka
- ... Merkataritza
- ... Beka-Deialdiak
- ... Argitalpenak
- ... Hitzarmenak
- ... Kultur ekitaldiak


:: Egin zaitez bazkide

:: Noaia! Hamaboskaria

:: Aurreko edizioak ikusi

:: Loturak

:: Albisteak



:: Ongi etorri noaia.com webgunera

- Albistegi berriua astero

- Herriari eta herriko taldeei buruzko informazioa

- Agenda zure eskura

- Lan eskaintza eta eskariak gure webgunean

:: Agenda ::

IRAILAK 13 Ostirala
· Pilota Txapelketa,
22:00etatik aurrera
frontoian.

IRAILAK 20 Ostirala
· Bertso afaria Xabier
Silveira eta Mantxirekin.
21:00etan Gaztetxean.
Txartelak Txiriboga
tabernan hilaren 18-ra
arte.

IRAILAK 21 Larunbata
· Santuencako festak.
10:00etatik 13:00etara
futbolina eta ludoteka.
12:00etan toka
txapelketa.
13:00etan buruhaundiak.
16:00etatik 18:00etara
futbolina eta ludoteka.
16:00etan mus txapelketa.
18:30etan erne! aparra!!!

IRAILAK 22 Igandea
· Santuencako festak.
12:00etan herri kirolak.
14:30etan auzo bazkaria.

:: Lan eskaintzak
:: Lan eskaerak
:: Garajeak
:: Etxebizitzak
:: Bestelakoak

:: Hurrengo alea ::

Hemen

Noaia!

Munduan

IGELTSEKITZA

URDANTZI

Mugikorra: 649 435475

649 435476

Telf: 943 363370 - 943 361439

ERRAZKIN IGELTSEKITZA

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

☎ 629 420565 - 649 435470

urki-mitxe@euskalnet.net

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatu berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE

ARANZAZISTROKI

Igeltseritza eta pin-

Juan Jose enea, 6

Kalezar

943 36 05 50 - 606 37

AROTEGIAK

BEREZIARTUA

Egurra eta egur-
ra-aluminioa
LEIHOAK

Aginaga

Telf: 943 37 15 71

JOSE RAMON

Neurriko altzariak eta sukaldeak

Errotaberri kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 -

Faxa: 943 36 69 45

JOSE MARI IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12


USURBILGO OFIZIOAK

ZURE ESKURA DITUZU

ITURGINTZA

PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

JAVIER ORBEGOZO

Iturgintza
Gasa



Berokuntza



Modurako Ardoak, 1. Solairu ☎ Telf: 943 36 37 67 ☎ 609 60 72 00 ☎ Moba: 609 60 72 00

JOSEBA ARANGU-

☎ 943 83 00 72

IÑAKI LATAILLADE

Iturgintza, gas eta
berogintza

Mobila: 609 888021

ELEKTRIZITATEA

MIKEL IZAGI-

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

ESKAIOLAK

EUGENIO NORIEGA

Erdiko kalea, 12

Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

JOSE ANTONIO ELORZA

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

PINTURAK

RAMON BARCENI-

- Pikor pintura eta gotele lanak
- Papereztatze- lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

FERNANDO PINTURAK

Enpapelaketak eta pinturak
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60

Gida honetan azaldu
nahi baduzu, deitu
943 360321 telefo-